



Zer zerikusi du Mr Potatok partaidetasun plangintza estrategikoarekin?

Partaidetasun plangintza estrategikorako tresnak elkarrekin diseinatzen-en emaitza da hau, Wikitokitik Ziortza Etxabek (Wikitokiko hostak) eta Ricardo Antónek (ColaBoraBora) garatutako tailerra. [Q-epea 2018. Gizartea eta pertsonak:Administrazioa berriz hausnartzeko gakoak](#) biltzarraren barne burututako tailerra. Biltzarra maiatzaren 24an eta 25ean ospatu zen Bilboko Bizkaia Aretoan. Modu osagarrian Q-epea baino zenbait aste lehenago egindako elkarrizketa kontsultatu dezakezu, ondorengo titulua zuena: [«Administrazio publikoak gauza izan behar du egitura komunitario bizekin aliantzak sustatu, osatu eta eusteko»](#).

WIKITOKI

Harrobi Plaza, 5-2.
48003 Bilbo
wikitoki.org



¿Zer behar dute...?

Q-epea 2018n *Partaidetasun plangintza estrategikorako tresnak elkarrekin diseinatzen* tailerra burutu baino lehen galdetzen genion hori geure buruari, Potato familiaren zenbait panpin erosten genituen bitartean sinbolikoari gorputza emateko eta sentsazio ludikoagoa sortzeko. Mr, Mrs eta safari bertsioa, ahalik eta aniztasun gehiena batzeko.

Argi utzi nahi genuen arazo konplexu baterako gerturatze partziala eta zatitua egingo genuela. Nabarmendu nahi genuen zatien aniztasunaren, begiraden garrantzia; baita collagera eta erantzunak edo pistak izan ditzaketen elkarrizketak, hitzak eta esaldiak muntatzera jolastearen garrantzia ere.



Abiapuntua

Berbera zer guztientzat. Sozialdemokrazia ordezkatzaille klasikoaren krisiaren esparruan kokatzen zen. Herritarrekin hurbiltasun eskasa, herritarrak ez entzutea, publikoa burokratizatzea, bizkortasun eta malgutasun falta, zerbitzuak privatizatzea eta zentraltasuna galtzea merkatuaren aurren, korrupzioa eta nepotismoa... Gizarte-zibilak politikan eta erakundeetan gero eta mesfidantza eta gaitzuste handiagoa izatea. Eta horren aurrean, geure erakundeak eta gobernantza-ereduak guztiz eraldatzeko beharra.

Egia esanda arratsalderako prestatuta genituen hainbat galdera goizean erabili ziren Q-epean, zenbait gaien inguruko hitzaldietan: talde-adimena, crowdsourcinga administrazioan, barne-hackeo, herritarren erantzukidetasuna ahalbidetzeko zabaltze-moduak... Gaur egun plangintzak zentzua duen ala ez eztabaidatu zen ere.



Berbetan erantzutea

Horrela, beroketa behin eginda, bi tailer burutu genituen (lehenengoa gazteleraz eta bigarrena euskaraz). Soziodrama batekin hasi genuen, zeinean, Oteiza aretotik mugitzen eta zenbait galderari erantzuten ezagutzen eta kokatzen joan ginen. Talde txikiak sortu ziren (3-4 pertsona) eta modu aleatorioan gutun-azalak banatu ziren, galderak (talde bakoitzak hamabi galderetatik bat zeukan), fitxa txikia eta Potatoya eratzeko pieza bat zituztenak.

Helburua zen galderak egitea funtsezko kontuei buruz guztion artean modu instituzionalak diseinatzeko momentuan; modu instituzional berriak, irekiagoak inklusiboagoak eta sakanabatuagoak, erantzunkidetasuna laguntzen dutenak, talde-adimenaren balioa nabarmentzen dutenak, harreman kualitatiboagoak indartzen dituztenak eta herritarrek parte hartzea bizitza publikoan sustatzen dutenak. Eta plangintzaren haritik tiraka, arreta jarri zen **PARTAIDETASUN PLANGINTZA ESTRATEGIKORAKO TRESNETAN**, proiektu erantzunkideagoaketa ebaluazio enpatikoagoa garatzeko balio dutenak.

Kontuan hartzen guztira 90 minutu geneuzkela, itxaropen erreala ezartzen saiatu ginen, presaren barnean, erronka ezinezko baten atzean korrika ez egoteko. Pauso txikiak ematearekin nahiko dugu. Elkarriketatik ateratzea galdera bakoitzari lotuta agertu diren hitzak (aditz bat, izen bat, izenondo bat) eta bakoitzarekin, erantzun gisa, ekintzara bideratutako esaldia eratztea.



Dozena bat galdera

Galdera sorta bat, zeinek, batera, parte-hartzeko sistema baten multzoari buruz pentsatzeko balio duten. Askotan errepikatzen diren galderak plangintza estrategikoko eta herritarren partaidetzako proiektuetan, non parte hartzen dugu, antolatzen ditugunak edo zeinetan parte hartzeko proposamena jasotzen dugun.

Diseinatzaile zein erabiltzaile gisa, aditu zein herritar gisa izandako esperientziatik sortutako galderak. Seguruenik beste batzuk egon daitezke, baina benetan, gehienetan antzeko galderak aurkitzen ditugu, testuinguruaren arabera aldatzen direnak, arreta jartzen dutenak gauza batean edo bestean. Konplexuak diren galderak. Galderak dituzten galderak, bakoitza bere esparrura eraman behar direnak eta hortik, elkarrizketan eremu komuna aurkitzea. Kasu honetan, hamabi galdera:

- (1) Partaidetasun prozesuen funtsezko arazoetako edo mugaketako bat da konfiantza galtzea herritarren eta erakundeen artean. Zertan oinarritzen da konfiantzazko harremana? Zer izango litzateke beharrezko elkarrekiko konfiantza berreskuratzeko? Nola zaindu eta mantendu konfiantzazko harremana?



(2) Partaidetasun plangintza prozesua prozesua bera ireki baino lehen jartzen da abian. Nondik dator beharra? Noiz eta nola ezartzen dira itxaropenak? Nork hautatzen ditu erronkak? Nork ezartzen ditu konpromisoak? Nork jartzen ditu baliabideak?

(3) Identifikatzea nork hartzen duen parte, nork hartu behar duen parte prozesuan, edozein partaidetasun prozesuren erronketako bat da. Ezaguna da eta testuinguruko eragileetara hel daiteke? Nola bermatu erasandako eragileek parte hartzea? Nola arduratu aniztasunaz, sortzen ari denaz, periferikoaz? Nola heldu orokorrean parte hartzen ez dutenei eta nola neurtu beti parte hartzen dutenen eragina? Nola konpondu ohiko parte-hartze etenak, teknologiarri, kulturari, adinari, generoari.. lotuta daudenak? Zer eskatzen eta eskaintzen diegu parte-hartzaileei?

(4) Plangintza estrategikoak analisi eta erabaki konplexuak dakartza, zenbait faktore eta ikuspuntu kontuan hartu behar dituztenak. Plangintza politikarien, teknikarien, adituen edo erabiltzaileen esku egon behar da? Nola erabili modu orekatuan zenbait jakintza, eskumen edo interesak?

(5) Partaidetasun prozesuak ERAGINKORRAK izan behar dira helburuak burutzeko, EFIKAZAK baliabideak erabiltzeko helburuak burutzeko eta AFEKTIBOAK parte-hartzaileen arretari dagokionez. Zer hartu behar da kontuan kontu horietako bat zaintzeko? Nola orekatu hiru maila horiek?

(6) Planifikatzea modu logikoan, arrazionalen, analitikoan, errealean pentsatzera bideratzen ohi gaitu. Horrek darama plangintza posibilistetara, ebolutiboetara eta gehikuntzakoetara, baina aldentzen gaitu beste aukera disruptiboagotatik, irudimentsuagotatik edo utopikoagotatik, arrazoiak baino desioak motibatuta. Badauka zentzurik espekulaziozko faktore hori plangintza estrategikoko prozesuetan? Nola egingo dugu? Nola neurtu errealitate biak?

(7) Partaidetasun prozesuek beharrezkoa dute pertsonen partaidetza aktiboa, haren indarraren eta iraupenaren arabera, ardura handia eskatzen dutenak, askotan bideragarria eta jasangarria ez dena. Nola egin daiteke partaidetza hori jasangarri? Komenigarria litzateke zenbait arduraldi ordaintzea, zinpekoen epaimahaietan edo hauteskunde-mahaietan egiten den bezala? Kobratzeak parte hartzeagatik ardura eta hiri-inplikazio maila handitu ala murrizten du?

(8) Planak garatzeko prozesu gehienek kontsultarako izaera dute. Herritarrei galdetzen zaie, ideia-deialdiak irekitzen dira, haiekin aukerak alderatzen dira. Zer izango litzateke beharrezko kontsulta-prozesu bat erabakitzaile izan dezan? Zer laguntza mekanismo edo prozesu abian jarriko beharko lirateke erabaki kualitatiboak, bideragarriak eta araudiei eta legediari moldatzen direnak bermatzeko?

(9) Epe-ertainerako plangintza estrategikoa lagungarria izan daiteke etorkizuneko kolektiboak irudikatzeke, leri nagusiak adierazteke, helburu garrantzitsuak ezartzeko. Baina errealitatea gero eta aldakorragoa da, planak ia beti bertan behera geratzen dira eta



beharrezkoak dira epe laburrerako plan eraginkorrak. Nola moldatu bi erritmo edo maila horiek? Nola garatu eta elkarrekin lotu ekintza zehatzak planaren esparru bateratuan? Nola zuzendu edo moldatu hasierako plana guztion artean?

(10) Partaidetasun prozesu baten erronketako bat da bere komunikazioa, bai deialdiari dagokionez bai prozesuaren garapenari dagokionez eta emaitzak sozializatzeko. Zer komunikatzen da? Nork komunikatzen du? Nork zuzentzen du komunikazioa? Nola komunikatzen da, zein modutan, zein baliabideekin, zein formatutan? Noiz komunikatu? Zertarako, zein helburuekin komunikatu?

(11) Plangintza lehenengo atala baino ez da erakundeen eta herritarren arteko erantzunkidetasun harremanean. Nola burutu partaidetasun segimendu eta ebaluazioak aurrez aurretik planifikatutakoari buruz? Zeintzuk dira abian jarri daitezkeen koprodukzio mekanismoak? Zein neurketa-sistema eta adierazle mota izan daitezke egokiak kontuak errendatzeko?

(12) Plangintza prozesua behin abian jarrita, zer geratzen da prozesuaz? Prozesuak nola berrelikatzen du testuingurua planatik harantz? Nola jarraitzen da? Nola jartzen da abian planifikatutakoa? Nola neurtzen dira eraginak? Garatutako planak egokitu ditzakete gainerako agenteek? Beste testuinguruetara eraman daitezke?

Hitz gakoak

- **Aditzak:** Hurbildu, Gogoratu, Ikasi, Erakarri, Aldatu, Partekatu, KOMUNIKATU, Fidatu, Kontsultatu, Sinetsi, Zaindu, Garatu, DISEINATU, ENTZUN, Piztu, Zatikatu, Berdinu, INPLIKATU, Sustatu, Ikertu, NAHASTU, Mantendu, Eragin, Behartu, Behatu, Optimizatu, Parte hartu, Bildu, ITZULI, Sentikortu, Eraldatu.
- **Izenak:** Jarduera, Urruntzea, Herritarrak, Elkarlana, Kolektiboak, KOMUNITATEA, Konfiantza, Baliabide-kontrola, Kultura parte-hartzailea, Datuak, Mesfidantza, Xahubidea, Xedea, Frustrazioa, Geometria, Taldea, Talde motorra, Talde fokalak, Lanerako tresnak, Ideiak, Talde-adimena, Hobekuntza, Beharra, Behar publikoak, HELBURUAK, Iritziak, PERTSONAK, PLANGINTZA, Lehentasuna, Arazoa, PROZESUA, Proposamenak, Proiektua, Joko-legeak, ERANTZUNKIZUNA, Emaitzak, Zerbitzu publikoa, Guztiok protagonista, Transformazioa, Gardentasuna.
- **Izenondoak:** IREKIA, AKTIBOA, Erakargarria, Partekatua, Bateragarria, Komunitarioa, Arretaz, Erantzunkidea, Sortzailea, Gorakorra, Eraginkorra, Sortuberria, Hunkigarria, Ulergarria, Oreatua, Ebolutiboa, Erraza, MALGUA, Emankorra, Orokorra, Liluragarria, Sustatua, Eraginda, Ausarta, Plangintza, Ekoizkorra, Ezaguna, Erreplikagarria, Adierazgarria, Soila, Solidarioa, Gardena, Aldakorra, Indarrekoa.



Erantzunak

- (1) Win-win iraunkorra lortzea, partekatutako joko-arauak akordatzen eta errespetatzen.
- (1) Konfiantzako sarea sortzea proposamen hunkigarriak transmititzeko.
- (1) Sentikortzea eraginkorra egiteko herritarren erantzunkidetasuna, konfiantza indartzen duena.

- (2) Herritarren arazoak / beharrak entzuten ditugu eta konponbide errazak bilatzen ditugu.
- (2) Erakundeak / instituzioak sinetsi behar du partaidetza tresna eraginkorra dela.

- (3) Kolektiboak modu aktiboan entzutea.
- (3) Administrazio irekia behar dugu herritarren ideiak, proposamenak eta iritziak batzeko. Eremuak aurrez aurretik finkatuko dira, partaidetza sustatuko da eta komunitate-sentimendua indartuko da.
- (3) Herritar guztiei heltzen diren pertsona aktiboak.



(4) Orekadun plangintzarako aldatzea.

(5) Beharrezko baliabideak gaitzea komunitate (herritarrak eta administrazioa) erantzunkide batek parte har dezan.

(5) Partaidetza-prozesu guztiak diseinatzea batera eta arretaz.

(5) Ikuspegi eskuzabala eta inklusiboarekin (partaidetasun prozesuaren plangintzaren hasieratik), erakunde eta pertsonen aniztasuna zaintzea eta arreta jartzea frustrazioa saihesteko, aldez aurretik baliabide erabilgarriak ezarrita.

(6) Kultura parte-hartzailea sustatzea berehala eta modu irekian.

(6) Garrantzitsua da herriek / hiriek herritarrekin partekatu dezatela modu irekian eta malguan, helburuak lortzeko ausardiaz.

(7) Kolektibitatea (herritarrak) ordezkatzeko duten foku-taldeak eratzeko behar publikoei buruzko galderei erantzunak bilatzen parte har dezaten motibazioz eta modu sustatuan zein aitortuan.

(7) Plangintza inklusiboa / diseinu ulergarria. Pertsonak entzutea prozesura erakartzea. Talde-adimen irekia erakartzea guztien ongirako.

(8) Ordezkaritza-prozesuak abian jartzea (herritarrenak, bezerorenak, erabiltzailearenak...). Galdetzeko, euren emaitzak bueltatzeko / berriz hartzeko konpromisoarekin.



(9) Epe luzerako plangintza epe laburrerako planekin moldatu behar da, helburu malguak zatikatzeko aukeraren bidez.

(10) Funtsezkoa da helburuak komunikatzea modu gardenean eta komunikatzeko modua zehaztea.

(11) Herritarrak galdetzea partaidetza gardena lortzeko.

(11) Talde-motor komunitario irekia mantentzea (motibatua, ilusioa duena eta aktiboa) hasierako plana aldizka ebaluatzen duena.

(12) Geometria aldakorra funtsezko filosofia / metodologia da politika publikoak diseinatzeko partaidetasunean.

(12) Plangintza malgua eta jarraitasuna duena diseinatu behar dugu.

(12) Plangintza prozesuaren helburua da taldeka aurretiko egoera optimizatzea erreplikatu ahal izateko.

Beste osagai batzuk

Gainera, amaitzeko parte-hartzaileei eskatu genien beste osagai batzuk gehitu ditzaten partaidetasun plangintza estrategikorako formulara. Hona horietako zenbait:

Autonomia, Konpromisoa, Ondorioak, Beti itzultzea (ondo zein txarto), Dinamikak, Askatasuna, Motibazioa, Gehiago behar dugu, Optimismoa, Pasioa, Hausnartzea, Proposatzen jarraitzea, Irribarrea... Eskerrik asko!



Puntu eta jarraian

Baliteke tailer honen emaitzak logikoak ez iruditzea, zentzuzkoak, izan beharko litzatekena... Baina konformistak ez izateko, ez gaituzte berriro ere bide gogotsuez? Infernurako bidea gogo onez harriztatuta dagoela diote ere!

Begiztatik irteteko, zaldiak zalditeriatik lauhazkatzeari utzi diezaion, geure burua marmotaren egunean ikusteko modu ona izan daiteke behin eta berriro agertzen dena seriotasun handiagoz hartzea. Nola egin dezakegu? Agertzen denean nabaria dena dirudiena baina ondoren errealitatera, egunerokotasunera, eramatea zaila dirudienarekin KONPROMISOA HARTZEA, banaka zein taldeka, da erronka.

Zer proposatzen dizuegu? Tailer hau zeuen testuingurueta eramatea. Geure Mr. Potato propioa eratzera jolastea. Jolasak proposatzen digun aurredeinatutako oinarrizko egituratik abia gaitzke. Jasotzen dugunatik guretzat balagarria dena erabiltzea. Bereizgarria denari eta sortzen dagoenari arreta jartzea. Piezak batzea, konbinazio berriak bilatzea... Eta horrekin guztiarekin Partaidetasun plangintza estrategikorako prozesu propioa diseinatzea.

!!!JOLASTERAAA!!!



VIKITOKI

Elkarsorkuntzarako Laborategia
Laboratorio de prácticas colaborativas